

Datuak babestea

www.zamudiokoudala.net dominioan sartzeko ez da izenik eman behar, baina gerta daiteke, webgunean kudeaketa edo izapide bereziren bat egiteko, erabiltzaileek datu pertsonal batzuk eman behar izatea, eskatutako zerbitzua emateko ezinbestekoak badira.

Datu horiek ZAMUDIOko Udalaren fitxategi informatizatuetan sartuko dira eta honako lege hauetan araututako tratamendua emango zaie: 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa; Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa; eta aplikatu beharreko gainerako xedapenak.

Jasotako datuak bakarrik lagako dira, interesdunak aurretiaz bere adostasuna adierazten badu edo aipatu den Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoan ezarritakoa betetzen bada.

ZAMUDIOko Udalaren fitxategi informatizaturen batean datu pertsonalak dituzten pertsonak legerian ezarritako moduan erabil dezakete beren datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubidea; horretarako, fitxategiaren ardura duen organora jo beharko dute: ZAMUDIOko Udala, Sabino Arana plaza, 1, 48170, ZAMUDIO, Bizkaia.